


Start Innova: Balio Proposamena

Kosmetika-sektorearen urteko hazkunde-tasa 2004tik 2023ra.



Grafikoan nabari dezakegu nola azkenengo urteetan (pandemian) beherakada handia izan zuela kosmetikaren sektoreak, hala ere azkenengo urteetan gorakada nabari bat izan du. Horregatik aukeratu dugu kosmetikaren munduan sartzea, gure kolonia berritzailearekin.

Bezeroak lurrin botila hau sortu baino lehenago kexak zituzten: “Lurrinez betetzen ditut nire eskuak, aitzitik produktua guztiz xahautzen ez dudalako.” Arazoa behin identifikatuta,

irtenbide baten bila jarri ginen. Hainbat hilabeetetako lan gogorraren ondorioz irtenbide ezin hobe aurkitu genuen: **Triangelu formako lurrin botilak!**

Diseinu honi esker, amaieran geratzen den perfumea guztiz aprobetxatzea lortu genuen. Beraz, bezeroekin partekatzea erabaki genuen. Gure xede nagusia kolonia botilak efizienteagoak izatea da. Izan ere, gure **diseinu berritzaileari** esker bertako likido guztia ondo aprobetxatuko litzateke.

Diseinu eraberritzaile honek, beste enpresengandik desberdintzen gaitu. **Balio kualitatiboa** eskeintzen dugu triangelu formako ontziari esker. Hau da, produktua ez da alferrik galtzen beste lurrinekin gertatzen den bezala.

Bere itxura bereziak beste kolonietatik bereiztea lortuko du. Gainera, tamaina desberdinak egotea erabaki dugu horrela bezeroek beraien nahien arabera tamaina perfektua hautatzeko aukera izango dute.



Honetaz gain, produktuaren **helburu nagusia lana erraztea** izango litzake, hortaz, diseinu berri honi esker lurrina guztiz aprobetxatuko genuke.

Ikuspegi sozialetik perfumea zerbait hierarkikoa zen. Hau da, duela hainbat mende gizarte maila sozialetan banatuta zegoen eta goi mailan (jauntxoak, erregeak...) erabiltzen zuten lurrina. Gaur-egun maila sozialak guztiz desagertuak egon arren, ahalduntzea eta autoestimua altua emateko erabili ohi dira. Bestalde, elegantzia eta garbitasuna transmititzen dute.

Amaitzeko, gehien saltzen den lurrina gaur-egun Channel 5° da. Azken urteetako perfume ikonikoetarikoa delako eta oso popularra da mundu guztian. Hala ere, gure proposamena kolonia honekin alderatuta pausu handiago bat ematea da. Gure “asmakizunari” esker. Channel 5°-ak lau ki itxura bait du eta azken perfumea kanporatzea zaila izaten da, gure koloniarekin aldiz ez da hau gertatuko.

